



# IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

**Ikastetxearen izena:**  
ETORKIZUNA IKASTOLA

---

**Ikastetxearen kodea:** 014492  
**Data:** 2022-12-16

---





# 1. SARRERA

## **Ikastetxearen testuingurua**

Kokapena, mailak, ikasleria, klaustroa, familien maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak, ikastetxearen ikuspegia eta baloreak...

Etorkizuna Ikastola zentro publiko bat da. Gallartan, Abanto-Zierbena udalaren auzo bat, Bizkaiko Meatzalde delakoaren bihotzean kokatuta dago. Bere biztanleria nagusiki langilea da, eta maila sozioekonomikoa ertain-txikia da. Biztanleria 10.000 biztanle ingurukoa da, eta atzerritarren etorrera, puntu geografiko desberdinetatik datozenak, gero eta ugariagoa da. Biztanle euskaldunen ehunekoa, %30 ingurukoa da, baina euskararen erabilera ez da, oraindik, normalizatu udal mailan. Jarduera sozioekonomikoaren funtzionamendu arruntarako behar diren oinarriko zerbitzuak nahikotzat har ditzakegu. Etorkizuna ikastola Amaraberri sareko eskola publiko bat da, 150 ikasle inguru ditugu L.H. eta H.H.-n eta 20 irakasle inguru. Ikasle gehienak herrikoak dira baina beste batzuk inguruko herrietatik etortzen dira. Gure ikastolan matrikulatzeko arrazoi nagusia Amaraberri sisteman ikasi nahi dutelako da. Eskolako beste langileak (atezaina, jantokiko begiraleak, garbitzaileak) 10 dira. Arkitekturaren aldetik, gure zentroa txikia eta espazio guztiak okupatuta duade. Ez dugu informatika gelarik. Familien inplikazioa oso nabaria da, eta ikasle gehienek baliabide teknologiko egokiak dituzte lana aurrera eraman ahal izateko.

## **Azpiegiturak**

Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...

Arkitekturaren aldetik, gure zentroa txikia da eta espazio guztiak okupatuta duade. Ez dugu informatika gelarik. Hala ere wifi ona dugu eta 4 eta 5 urteko gelan, musika gelan eta LHko gela guztietan pantaila digitalak ditugu. LHko 2 eta 3 zikloko ikasleek eta ingeleseko gelan portatilak erabiltzen ditzuzte. Irakasleen artean komunikatzeko difusio whatsapp taldea edo gmail korporatiboa erabiltzen dugu. Drive, google calendar, sites, meet eta halako aplikazioak ere erabiltzen dira. Mantenua irakasle bakoitzak arduratzen da kudeatzen, hala ere batzutan CAU-ra deitzen dugu arazoa konpontzeko, konfiguratzeko, programak instalatzeko ...

### Proiektuaren justifikazioa

Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari eta zergatik parte hartzen da.

#### TEKNOLOGIA DIGITALEN GARRANTZIA

Teknologia digitalek aldaketa garrantzitsuak ekarri dituzte gizartearen esparru guztietan. Digitalizazio-prozesuek gero eta eragin handiagoa dute sektore ekonomiko guztietan. Gauza bera gertatzen da zerbitzu publikoekin, ikerketa zientifikoarekin, kulturarekin eta sorkuntza artistikoarekin, besteak beste.

Guztiok behar dugu gutxieneko kompetentzia digitala eta nolabaiteko garapen-maila eguneroko bizitzan moldatzeko, edozein lanpostu betetzeko eta karrera profesionala garatzeko.

Teknologiak ezagutza eskuratzeko, lankidetzan aritzeko eta jakintza eraikitzeke oinarritzko bideak eskaintzen ditu, eta ikaskuntza hobetzeko eta baliabide eta tresna pertsonalizatuak eskuratzeko estrategia pedagogikoak zabaltzen eta indartzen ditu. Bestalde, ikastetxeetan irakaskuntzari eta ikaskuntzari lotutako koordinazio-, antolaketa- eta kudeaketa zereginak optimizatzeko tresnak ere eskaintzen ditu.

Horregatik, etengabeko ikaskuntzarako funtsezko kompetentziei buruzko Europako Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 22ko Gomendioan, irakurketa-idazketaekin eta kalkularekin batera, kompetentzia digitala sartu da arreta berezia eskaini behar zaien oinarritzko kompetentzien artean.

Teknologia digitalen erabilera egokia nabarmentzen du, halaber, hezkuntzaren, prestakuntzaren eta ikaskuntzaren testuinguruetan, funtsezko kompetentziak eskuratzeko eta garatzea errazteko, eta kompetentzia espezifikoek esparruak sortzea sustatzeko Europako Batzordeak bultzatu duen ekimena babesten du.

Ikasleek eta, azken batean, herritar guztiek funtsezko kompetentziak eskuratu eta garatu dituztela bermatzeko, ezinbestekoa da irakasleen eta ikastetxeen kompetentzia digitala behar bezala garatzea.

#### MARKO JURIDIKOA

Horrela, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, ikastetxe publikoetako informazio- eta komunikazio-teknologiei buruzko 111bis artikuluan, ezartzen du irakaskuntzako kompetentzia digitalaren erreferentzia-esparru bat landuko dela irakasleen etengabeko prestakuntza orientatzeko eta ikasgelan kultura digitalaren garapena errazteko.

Etengabeko prestakuntza irakasle guztien eskubide eta betebeharraren gisa definitzen da Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006

### Elaborazio prozesua eta lan-taldea

Lehenetsunak zehaztu.

Planifikazio maila zehaztu.

Nor izango da eragilea?

Gure Hezkuntza Proiektuaren bi ildo estrategikoetan oinarritzen da:

- Hezkuntza-komunitatearen prestakuntza.

- Ikas materialean, informazioan eta komunikazioan teknologiak berriak txertatzea.

Digitalizazio plan hau egin ahal izateko, eskolako diagnostia egin dugu. Diagnosti horretan, IKTen erabilaren gaineko azterketa egin dugu: tresneria, erabilera, formakuntza, estrategiak...

Diagnostia egiteko arduraz zuzendaritza taldeak hartu zuen 2021-2022an eta erabili zen tresna SELFIE izan zen, ikasle, irakasle eta zuzendaritza taldeari pasatutako galdetegi. Emaitzak aztertuta, ikastolako indarguneak eta ahuleziak kontuan hartuko ditugu digitalizazio plana egiteko.

2022-23ko ebazpenean jartzen duen bezala, aurtun Digitalizazio plana diseinatzea da helburua.

#### Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena

Ikastetxean dugu Amara Berri sistemak, bere baitan, teknologia berriekin lotutako zenbait alderdi dakartza: Txikiweb, telebista, egunkaria eta irratia. Horiekin eskola mailan aurrera jarraituko da.

Aurten Digitalizazio Plana martxan ipiniko da, hezkuntzak markatzen dituen ildoak jarraitzeko eta zonaldeko IKT mentorea eta gure BeAren laguntzarekin.

Digitalizazio komisioa eta arduraduna dugu:

Arduraduna: Gaizka Ibarretxe

Zuzendaritza: Jesús Fraile eta Arrate Aguayo

Gure helburua, Eskolako Digitalizazioari ikuspuntu berriztatzailea ematea, irakasleak Digitalizazio perfila eskuratzea eta gure eskolako praktikan digitalizazioa areagotzea izango da.



## 2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

**Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa.**

SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.

Eskolan egindako behaketa, inbentario informatikoa kontuan hartuta eta 2021-2022an SELFIE tresnatik jasotako emaitzen inguruko hausnarketa egin dugu eta Eskolak dituen indarguneak eta ahuleziak identifikatu ditugu.

## AMIA analisia

Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak.

### Faktore negatiboak

| Ahuleziak (barne-faktoreak)   |
|---|
| Teknologiaren erabilerak, gure eskolan (eta gure Amaraberri sisteman) izan behar duen pisuaren inguruan, ez dugu hausnarketarik egin. |
| Eskolan espazio falta dugu eta Informatika gelarik ez dugu.   |
| Dispositibo digitalen berrikuntza beharrezkoa da eta dispositibo gehiago lortzea ere.   |
| IKT batzorderik ez dugu. (2022-23 ikasturtean bai)  |
| Ordenagailu batzuk mantentze zerbitzutik kanpo daude.   |
| Irakasleen eta familien maila teknologikoa heterogeneoa da.   |
| Tresna digitalak modu egokian erabiltzeko protokolo bat ez dugu sistematizatuta.  |
| Eskolak ez du bultzatzen irakasleen garapen digital jarraia. (2022-23 ikasturtean bai)  |
| Ikasteko inguru birtualen erabilera eskasa da.  |
| Ikas arlo desberdin arteko proiektu gutxi garatzen dugu.  |
| Ikasketa prozesuaren ebaluazioan, teknologia berrien erabilera eskasa da.   |
| Irakasleagoak material digitala sortzeko, formakuntza eta denbora falta du.   |
| Sarean dauden digital baliabideen ezagutza eta erabilera eskasa da.   |

+ Lerro bat gehitu

| Mehatxuak (kanpo-faktoreak)  |
|--|
| Familia Batzuen kompetentzia digital baxua.  |
| Ikastetxeari dagokionez interesik azaltzen ez duten familiak, komunikazio sistemak erbiltzeko asmorik ez dutenak edo ezin dutenak. |
| Jaiotze tasa dela eta, gero eta ikasle gutxiago dago eskolan.  |

+ Lerro bat gehitu

### Faktore positiboak

| Indarguneak (barne-faktoreak)  |
|--|
| Errekurtsu eta dispositibo digitalak erabiltzen dituzte bai ikasleek baita irakasleek ere.                                     |
| Bigarren eta hirugarren zikloetako tutoreek portatila dute.  |
| Konexio ona dago ikastetxe osoan (wifia).  |
| Familiekiko harremana eta komunikazioa bermatzeko plataforma digitala erabiltzen da: web orria eta whatsapp difusio talde bat. |
| Googleleko tresna desberdinak erabiltzen dira: galdetegiak, drive dokumentoak, clasroom...                                     |
| Eskola domeinua erabiltzen da posta elektronikoan, lhko ikasle eta hh eta lh-ko irakasle bakoitzak bere kontua duelarik.       |
| Ikasleek motibazio handia izatea teknologia berriekin eta ikasteko gogoarekin.   |
| Ikasleak ikt-en sortzaileak dira: Txikiweb, tb programa, aldizkaria, irratia programak, aurkezpen grabazioak, lanen eskaneok.  |

|  |
|--|
| Familiak gero eta ikt aplikazio gehiago erabiltzen dituzte: bekak, ikasgunea, galdetegiak...   |
| Hainbat dokumentazioa digitalizatuta dugu (aktak, ikasleen espedienteak, tutorialak, eskolako dokumentoak eta proiektuak) eta irakasleekin partekatuta dago. |
| Digitalizatuta dugun informazioa ziurtatzen dugu, galdu ez dezan.  |

+ Lerro bat gehitu

|   |
|---|
| <b>Aukerak (kanpo-faktoreak)</b>  |
| Berritzegunen eskaintako formakuntzak.  |
| Amaraberi sareko esperientzien trukaketa.   |
| Ikasle ratio txikia daukagu.  |
| Irakasle gazte berri guztiek digitalki oso kompetenteak dira eta erabilera bultzatzen dute. |
| Curridigi formakuntzak teknologia berrietan sakontzeko "aukera" ematen digu.                |

+ Lerro bat gehitu

#### Autoebaluzioaren ondorioak

Hausnarketa eta AMIA tresnatik ateratako ondorioak.

#### Indarguneak optimizatu aukerak areagotzeko

Ikasleek motibazio handia izatea teknologia berriekin eta ikasteko gogoarekin ikusten dugu. Ikasleak IKT-en sortzaileak dira: Txikiweb, tb programa, aldizkaria, irratik programak, aurkezpen grabazioak, lanen eskaneak.

Berritzegunen eskainitako formakuntzak.

Amaraberri sareko esperientzien trukaketa.

Hezkuntza-komunitatearen prestakuntza eta ikas materialetan, informazioan eta komunikazioan teknologiak berriak txertatzek, gure hezkuntza proiektuaren bi ildo dira. Bestaldekik, ikasleentzat esanguratsuak diren jarduerak eta bizitza errealekiko lotura duten ekintzak ere egitea, Amaraberri sistemaren oinarri bat da.

#### Ahuleziei aurre egin aukerak aprobetxatzeko

Eskolan espazio falta dugu eta Informatika gelarik ez dugu.

Dispositibo digitalen berrikuntza beharrezkoa da eta dispositibo gehiago lortzea ere.

IKT batzorderik ez genuen 2021-22an, aurtun 2022-23an sortu da.

Tresna digitalak modu egokian erabiltzeko protokolo bat ez dugu sistematizatuta. Irakasleagoak materiala digitala sortzeko, formakuntza eta denbora falta du.

Sarean dauden digital baliabideen ezagutza eta erabilera eskasa da.

Ikastolako hezkuntza prozesuan, digitalizazioa izan behar duen pisua adostuta dugunean, informatika gailuen beharrak aztertuko ditugu, behar horiek ahal dugun neurrian asetu eta erabilera protokolo bat ezarriko da.

#### Indarguneak optimizatu mehatxuak indargabetzeko

Gurasoentzako formakuntza saioak antolatzea ikasturte hasieran ikastetxean erabiltzen diren plataformak eta aplikazioak ezagutarazteko.

Inguruko zentroekin dugun harreman positiboa erabili estrategia digital bateratu bat sortzeko.

Ikaslegoari irakatsi zer nolako arriskuak gerta daitezke erabilpen oker baten ondorioz.

Familiei eta irakasleei ere digitalizazioan trebatzeko aukera eman.

Ikasleek teknologia berriekin erakusten duten motibazioa eta ikastetxeko proiektuek ematen dituzten aukerak uztartu ikasleen profil/konpetentzia digitala hobetzeko eta etxean egon daitezkeen komunikazio/teknologia zailtasunak ekiditzeko.

#### Ahuleziei eta mehatxuei aurre egin

IKT batzordea bat sortu 2022-23an, ikastolako baliabide digitalen mantenimendua bermatzeko.

Ikasle, irakasle eta familien maila teknologikoa indartu.

Horretaz gain tresna digitalak modu egokian erabiltzeko protokolo bat sortu.

Gurasoentzako formakuntza saioak antolatu ikasturte hasieran. Formakuntza saio hauetan ikastetxean erabiltzen diren plataformak, aplikazio, ikasgela birtualak,...ezagutarazi eta erabilera murgiltzeko.





### 3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

#### LG Lidergoa eta gobernantza

|   |             |                |
|---|-------------|----------------|
| <b>Helburua</b>   |             |                |
| Gure Amaraberrri sistemako ikastolan teknologia digitalaren erabilera aztertzea, jarraipen egoki bat egiten, hezkuntza prozesua nola hobetu daiteke bermatzeko. |             |                |
| <b>Deskriptorea</b>   |             | <b>Epea</b>    |
| LG 1.1 Ikaskuntza digitalerako teknologien ahalmena argi markatzen da   |             | 2024-06-21     |
| <b>Adierazlea</b>   | <b>Mota</b> | <b>Helmuga</b> |
|   | Bai/Ez      | Bai            |
|   | Bai/Ez      | Bai            |
|   | Bai/Ez      | Bai            |

+ Adierazle gehitu

| Ekintzak  | Baliabideak        | Arduradunak   | Epea       | Egoera         |
|---|--------------------|---------------|------------|----------------|
| Gailuen mantenua eta erabilera kudeatzeko protokoloa sortu eta garatu.                                | Ziklo bilera       | IKT batzordea | 2024-06-21 | Detektatua     |
| Ziklo bakoitzean zer erabiltzen den, zer behar den eta nola dagoen aztertu.                           | ziklo bilerak      | klaustroa     | 2023-06-09 | Hasita (%1-19) |
| Gailu fisikoen zaintza (karga, non eta nola gorde, erabilera partekatua...) adostu eta sistematizatu. | ziklo bilera       | Klaustroa     | 2024-06-21 | Detektatua     |
| Protokoloa Klaustroan azaldu.   | klaustroa          | IKT batzordea | 2024-06-20 | Detektatua     |
| Baliabide digitalen erabilpen egokia tutoretzan landu.  | tutoretza saioetan | Tutorea       | 2024-06-21 | Detektatua     |

|  |                 |                       |            |                |
|--|-----------------|-----------------------|------------|----------------|
| Ziklo bileretan, teknologia digitala erabiltzeko aukerak eta esperientziak partekatu.                        | ziklo bilerak   | ziklo koordinatzailea | 2024-06-21 | Hasita (%1-19) |
| Hizkuntza eta Zientzietako mintegietan, teknologia digitala erabiltzeko aukerak eta esperientziak partekatu. | Mintegi bilerak | arloetako irakasleak  | 2024-06-21 | Hasita (%1-19) |

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

## II Irakaskuntza eta ikaskuntza

|  |            |         |
|--|------------|---------|
| Helburua   |            |         |
| Programazio didaktikoetan kompetentzia digitala esplizituki agertzea, hau garatzeko erabiliko diren baliabide eta tresna digitalak zehatzuz, eguneroko hezkuntza jardueran informazio eta komunikazio tresnen erabilera sistematizatzeko |            |         |
| Deskriptorea   | Epea       |         |
| II 1.3 Pertsonalaren eta ikasleen gaitasun digitalaren (GD) konparatiboa egiten da.  | 2024-06-21 |         |
| Adierazlea   | Mota       | Helmuga |
|  | Bai/Ez     | Bai     |

+ Adierazle gehitu

| Ekintzak  | Baliabideak             | Arduradunak                             | Epea       | Egoera     |
|---|-------------------------|---|------------|------------|
| Mintegiaren programazioak berrikusi eta IKT baliabideen erabilpena aztertu                                    | mintegiak               | Mintegiko partaideak                    | 2024-06-07 | Detektatua |
| Mintegiaren programazioak berrikusi eta IKT baliabideen erabilpena berriztu edota baliabide berriak txertatu. | mintegiak               | Mintegiko partaideak                    | 2024-06-07 | Detektatua |
| Ikasleen IKT irteera profila mailaz maila zehaztu.  | ziklo bilera, klaustroa | ziklo koordinatzailea eta IKT batzordea | 2025-06-13 | Detektatua |
| Baliabide digitalaren erabilera, adina eta zailtasunaren arabera sailkatu.                                    | ziklo bilera, klaustroa | ziklo koordinatzailea eta IKT batzordea | 2025-06-13 | Detektatua |
| Ikasle etorri berrientzako harrera digitalerako plana sortu.  | ikt batzordea           | IKT batzordea                           | 2023-12-15 | Detektatua |

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

GP Garapen profesionala

|  |            |         |
|--|------------|---------|
| Helburua   |            |         |
| Ikastetxeko irakaslearen kompetentzia digitala garatzeko formakuntza eta laguntza eskaintzea, eskolako profesionalen premia zehatzak bideratzeko, trebakuntza beharrak identifikatu eta formazio planak diseinatzeko |            |         |
| Deskriptorea   | Epea       |         |
| GP 1.5 EGP egiaztatu/ziurtatuak lortzeko aukerak sustatzen dira  | 2024-06-21 |         |
| Adierazlea   | Mota       | Helmuga |
|  | Bai/Ez     | Bai     |

+ Adierazle gehitu

| Ekintzak   | Baliabideak   | Arduradunak  | Epea       | Egoera             |
|--|---------------|--------------|------------|--------------------|
| Irakaslearen %80a A2 ikastaroa egin du                                       | ziklo bilera  | Irakasleak   | 2024-06-21 | Prozesuan (%40-59) |
| Etapetako bileretan beharrak aztertu eta hauen inguruko formakuntzak egin du | ziklo bilera  | Irakasleak   | 2024-06-21 | Hasita (%1-19)     |
| Irakasle etorri berrientzako harrera digitalerako plana sortu.               | ikt batzordea | IKT batzodea | 2023-07-21 | Detektatua         |

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

## EJ Ebaluazio jardunbideak

|   |
|---|
| <b>Helburua</b>   |
| Hezkuntza prozesuaren ebaluazioa digitalizatzen hastea, ebaluazio tresna digital adostuak diseinatuz eta baliabide banku digitala sortuz, ikaste-irakaste prozesuaren jarraipen bateratu bat egiteko. |

|  |             |
|--|-------------|
| <b>Deskriptorea</b>                                | <b>Epea</b> |
| EJ 1.1 Ebaluazio formatiboaren helmena hedatzen da | 2024-06-21  |

|                   |             |                |
|-------------------|-------------|----------------|
| <b>Adierazlea</b> | <b>Mota</b> | <b>Helmuga</b> |
|                   | Ehunekotan  | 50             |
|                   | Bai/Ez      | Bai            |

+ Adierazle gehitu

| Ekintzak  | Baliabideak         | Arduradunak   | Epea       | Egoera             |
|---|---------------------|---------------|------------|--------------------|
| Ebaluazio txostena edo boletina aztertu eta digitalizatu                  | ziklo bilera        | tutoreak      | 2023-11-17 | Prozesuan (%20-39) |
| HH irakasle taldearen iritzia entzun eta oharretarako esaldi bankua sortu | ziklo bilera        | tutoreak      | 2023-11-17 | Prozesuan (%40-59) |
| Digitalizatzeko aukerak aztertu; gure plataforma edo kanpo plataforma.    | ikt batzordea       | IKT batzordea | 2024-06-21 | Detektatua         |
| Komunikatze sistema irakasle eta gurasoekin zabaldu.                      | zuzendaritza taldea | IKT batzordea | 2024-06-21 | Hasita (%1-19)     |

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

## EC Edukiak eta curriculuma

|  |            |         |
|--|------------|---------|
| Helburua   |            |         |
| On-line baliabide egokiak bilatu, aztertu eta programazioan txertatea, mintegi bileren bidez, curriculuma garatzeko eta berritzeko |            |         |
| Deskriptorea   | Epea       |         |
| EC 1.2 Edukiaren biltegiak zabalki eta modu eraginkorren erabiltzen dira   | 2024-05-31 |         |
| Adierazlea   | Mota       | Helmuga |
|  | Bai/Ez     | Bai     |

+ Adierazle gehitu

| Ekintzak                                      | Baliabideak | Arduradunak       | Epea       | Egoera         |
|---|-------------|-------------------|------------|----------------|
| Material berriak bilatu, aztertu eta baloratu | Mintegiak   | Mintegiko bilerak | 2024-06-07 | Hasita (%1-19) |
| Material berriak txertatu                     | Mintegiak   | Mintegiko bilerak | 2024-06-14 | Hasita (%1-19) |

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

EN Elkarlana eta networking-a

|   |  |
|---|--|
| Helburua  |  |
| Ikastetxeko barne zein kanpoko komunikaziorako plan digital bat sortzea, lankideen artean eta familiekin komunikazio bide digitalak adostuz, hezkuntza komunitatearekiko bi norazkoko komunikazio egokia bideratzeko. |  |

|   |            |
|---|------------|
| Deskriptorea  | Epea       |
| EN 1.5 Barne-lankidetzak eta ezagutzak trukatzeko espero da | 2024-06-28 |

| Adierazlea | Mota   | Helmuga |
|------------|--------|---------|
|            | Bai/Ez | Bai     |
|            | Bai/Ez | Bai     |
|            | Bai/Ez | Bai     |

+ Adierazle gehitu

| Ekintzak   | Baliabideak | Arduradunak                   | Epea       | Egoera         |
|--|-------------|-------------------------------|------------|----------------|
| Informazioa helarazi eta dokumentuak elkarbanatzeko gmail erabili.         | klaustroa   | irakasleak                    | 2024-06-28 | Hasita (%1-19) |
| Informazioa helarazteko google calendar erabili.                           | klaustroa   | irakasleak                    | 2024-06-28 | Hasita (%1-19) |
| Informazioa helarazi eta dokumentuak elkarbanatzeko whatsapp erabili.      | familiak    | zuzendaritza taldea           | 2024-06-28 | Hasita (%1-19) |
| Informazioa helarazi eta dokumentuak elkarbanatzeko drive erabili.         | klaustroa   | irakasleak                    | 2024-06-28 | Hasita (%1-19) |
| Informazioa helarazi eta dokumentuak elkarbanatzeko web orrialdea erabili. | Familiak    | zuzendaritza taldea/idazkaria | 2024-06-28 | Hasita (%1-19) |

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

## AZ Azpiegiturak

|   |
|---|
| <b>Helburua</b>   |
| Eskola baliabide digital eta teknologikoz hornitzea, beharrak identifikatuz eta hauei aurre egiteko protokoloak eta planak ezarriz, hezkuntza prozesuan informazio eta komunikazio tresnak erabili ahal izateko eta kompetentzia digitala behar bezala garatzeko. |

|   |             |
|---|-------------|
| <b>Deskriptorea</b>   | <b>Epea</b> |
| AZ 2.10 Plan eragile bat dago ezarrita sare nagusirako eta IKTetako oinarritzko zerbitzueterako | 2025-06-20  |

| Adierazlea | Mota       | Helmuga |
|------------|------------|---------|
|            | Bai/Ez     | Bai     |
|            | Bai/Ez     | Bai     |
|            | Bai/Ez     | Bai     |
|            | Ehunekotan | 80      |

+ Adierazle gehitu

| Ekintzak   | Baliabideak  | Arduradunak                             | Epea       | Egoera             |
|--|--|---|------------|--------------------|
| Ikastetxeko gailuen zerrenda sortzea eta eguneratzea. Baliabide digitalen inbentario orokorra egin                       | aurreko inbentarioaren kontrol zerrenda, aplikatiboa | IKT batzordea                           | 2024-03-15 | Prozesuan (%20-39) |
| Gela bakoitzaren inbentarioa egin  | zuzendaritza taldea                                  | zuzendaria                              | 2024-02-16 | Prozesuan (%20-39) |
| Tresneri digital behar berriei erantzun ahal izateko, ikastolak gailu berriak erosteko aukerak aztertu eta gailuak erosi | Irakasleek eta zuzendaritza taldea                   | IKT batzordea                           | 2024-06-14 | Prozesuan (%20-39) |
| Erabilera egokiaren eta seguruaren protokoloak zehaztu.  | ziklo bilera, klaustroa                              | ziklo koordinatzailea eta IKT batzordea | 2024-06-14 | Prozesuan (%40-59) |

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu



## IB Ikastetxeko berariazkoak

|              |      |         |
|--------------|------|---------|
| Helburua     |      |         |
|              |      |         |
| Deskriptorea |      | Epea    |
|              |      |         |
| Adierazlea   | Mota | Helmuga |
|              |      |         |

+ Adierazle gehitu

| Ekintzak | Baliabideak | Arduradunak | Epea | Egoera |
|----------|-------------|-------------|------|--------|
|          |             |             |      |        |

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu



## 4. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

|    | Helburua  | Noiz ebaluatu                                    | Nola ebaluatu   | Nork ebaluatu   | Betetze maila  | Hobetzeko proposamenak |
|----|---|--|---|---|----------------|------------------------|
| LG | Gure Amaraberrri sistemako Ikastolan teknologia digitalaren erabilera aztertzea, jarraipen egoki bat egiten, hezkuntza prozesua nola hobetu daiteke bermatzeko.   | Fase 1: 2023 - 12 - 21<br>Fase 2: 2024 - 06 - 21 | Fase 1: teknologien erabilera aztertuko dira.<br>Fase 2: hobekuntzak proposatuko dira.  | Digitalizazio batzordea zuzendaritza taldea ziklo koordinatzaieak<br>Tutoreak<br>Espezifikoak | Detektatua     |                        |
| LG | Digitalizazio eta IKT batzordeak eratu eta hauen nondik norakoak zehaztea, partaideen zereginak banatuz eta funtzionamendu plan bat zehaztuz, eskolaren digitalizazio era ahalik eta eraginkorrean aurrera eramateko. | Fase 1: 2023 - 12 - 21<br>Fase 2: 2024 - 06 - 21 | Fase 1: Digitalizazio batzordea osatuko da eta ordutegia, betebeharrak eta koordinazio bilerak zehaztuko dira.<br>Fase 2: Ikastetxeak irakasleen parte hartzeko egitura bat zehaztuko du, bere estrategiak digitalak garatu eta funtzionamendu plana sortuko du | Digitalizazio batzordea zuzendaritza taldea ziklo koordinatzaieak                             | Hasita (%1-19) |                        |

|    |   |                |   |  |                       |  |
|----|---|----------------|---|--|-----------------------|--|
| II | <p>Programazio didaktikoetan konpetentzia digitala esplizituki agertzea, hau garatzeko erabiliko diren baliabide eta tresna digitalak zehaztuz, eguneroko hezkuntza jardueran informazio eta komunikazio tresnen erabilera sistematizatzeko</p> | 2024 - 06 - 21 | <p>Erabiltzen diren baliabide eta tresna digitalak egokiak badira programazio didaktikoetan txertatuko dira.</p>        | <p>Digitalizazio batzordea zuzendaritza taldea ziklo koordinatzaieak Tutoreak Espezifikoak</p> | <p>Detektatua</p>     |  |
| GP | <p>Ikastetxeko irakaslegoaren konpetentzia digitala garatzeko formakuntza eta laguntza eskaintzea, eskolako profesionalen premia zehatzak bideratzeko, trebakuntza beharrak identifikatu eta formazio planak diseinatzeko</p>                   | 2024 - 06 - 21 | <p>Irakasle bakoitzaren formakuntza maila eta premiak aztertuko da ondoren formazio planak eskatu edo diseinatzeko.</p> | <p>Digitalizazio batzordea zuzendaritza taldea</p>   | <p>Hasita (%1-19)</p> |  |

|    |   |  |   |   |            |  |
|----|---|--|---|---|------------|--|
| EJ | Hezkuntza prozesuaren ebaluazioa digitalizatzen hasia, ebaluazio tresna digital adostuak diseinatu eta baliabide banku digitala sortuz, ikaste-irakaste prozesuaren jarraipen bateratu bat egiteko. | Fase 1: 2023 - 12 - 21<br>Fase 2: 2024 - 06 - 21 | Fase 1: ebaluazio tresnak digitalak adostu eta diseinatu.<br>Fase 2: Ebaluazio tresna digitalak martxan jarriko dira. | Digitalizazio batzordea zuzendaritza taldea ziklo koordinatzaieak Tutoreak Espezifikoak | Detektatua |  |
| EC | On-line baliabide egokiak bilatu, aztertu eta programazioan txertatzea, mintegi bileren bidez, curriculumak garatzeko eta berritzeko  | 2024 - 05 - 31                                   | Erabiltzen diren on-line baliabideak programazio didaktikoetan txertatuko dira.                                       | Digitalizazio batzordea zuzendaritza taldea ziklo koordinatzaieak Tutoreak Espezifikoak | Detektatua |  |

|    |  |  |  |   |                    |  |
|----|--|--|--|---|--------------------|--|
| EN | Ikastetxeko barne zein kanpoko komunikaziorako plan digital bat sortzea, lankideen artean eta familiekin komunikazio bide digitalak adostuz, hezkuntza komunitatearekiko bi norazkoko komunikazio egokia bideratzeko.  | Fase 1: 2023 - 12 - 21<br>Fase 2: 2024 - 06 - 28 | Fase 1: komunikatzeko erabiliko diren tresnak eta baliabideak zehaztu.<br>fase 2: komunikatzeko erabiltzen diren tresna eta metodoak aztertu eta behar izanez gero hobekuntzak adostu. | Digitalizazio batzordea zuzendaritza taldea ziklo koordinatzaieak Tutoreak Espezifikokoak | Prozesuan (%20-39) |  |
| AZ | Eskola baliabide digital eta teknologikoz hornitzea, beharrak identifikatzu eta hauei aurre egiteko protokoloak eta planak ezarri, hezkuntza prozesuan informazio eta komunikazio tresnak erabili ahal izateko eta konpetentzia digitala behar bezala garatzeko. | Fase 1: 2024 - 06 - 21<br>Fase 2: 2025 - 06 - 20 | Fase 1: Ikastolako gela guztietan dagoen materialaren inbentarioa egin eta beharrak aztertu.<br>Fase 2: beharrak ikusita eskola baliabide digital eta teknologikoz hornitzea.          | Digitalizazio batzordea zuzendaritza taldea ziklo koordinatzaieak                         | Hasita (%1-19)     |  |
| IB |  |  |  |   |                    |  |

